

TOKIKOM

2010eko martxoa | 91. zenbakia

ailkor

txorierriko aldizkaria

Sabin Arana

Sustraietan arakatzen

JOSUNE MUÑOZ KALE ISTILUAK ZAMUDION RADIMERTXORIERRI ARETO FUTBOL TALDEA

UDABERRI KANPAINA

MARTXOA, APIRILA eta MAIATZA

Sariak Txartelak Erabiliz



**Txartela eskuratu berri dutenei
150 puntu emango zaizkie**

GABAI GASOLINDECIAN %2KO DESKONTUA




CAJA RURAL
DE NAVARRA



Derio Zeharrek Merkatarien
Elkarte Profesionala

anirik paraio!

Asociación Profesional de
Comerciantes y Mercaderes de Derio



Derio



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkartearen Federazioa (Lagatzu, Zorritzketan, Arrekikili, Tximintx)
Tel.: 94 452 34 47
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Jose Angel Mentxaka, Maite Lekerika, Iñaki Suarez, Gaizka Eguskiza, Amagoia Guezuraga, Pospolin, eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Sara Gándara, Toti Mtz. de Lezea, Mikel Etxebarria, Fernando Olabarrieta, Xabier Díaz, Ines Serrano, Oihana Astobieta, DAT Derioko argazki taldea, Belen Gana, Juan Luis Goikoetxea eta Juantxu Bilbao

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: AIKOR!

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.500

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.




EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA BAILA

I. EREKIA / I. EREKIA / I. EREKIA



BFA
DFB



diruz lagundutako aldizkaria





12 Josune Muñoz

24 Kale istiluak, Zamudion

28 Radimer Txorierri taldea

- 4 Eritxia
- 5 Laburrak eta albisteak
- 11 Iruditan... Zuritu egin du
- 12 Gurean izan da... Josune Muñoz
- 14 Gaztea eta... Aner Mentxaka
- 16 Jon Gastañaga, zapataria
- 18 Sabin Arana, historiazalea
- 22 Publierreportajea
- 24 Gakoa dibertimendua da
- 26 Txorierritarrak munduan... Quebec
- 28 Txorierri ezagutu... Kale istiluak, Zamudion
- 30 Elkaratek/Taldeak... Radimer Txorierri
- 32 Osasuna... Arnasa hartzea
- 34 Teknologia... 3D
- 35 Aikorrizketan... Mundialak gara txorierritarrok!
- 36 Sukaldaritza
- 37 Denborapasa
- 38 Agenda





TOTI MTZ. DE LEZEA
(Idazlea)

Liburuak zentsuratzea ohiko jarduna izan da Historian zehar. Errege-erreginak, naziak, komunistak, katolikoak, juduak, musulmanak, luteranoak... Zentsura erabili dute horiek guztiek, beren garaikideen adierazpen eta pentsamendu askatasuna kontrolatzeko.

Espanian, 1490ean, sei mila liburu erre ziren Salamancan, eta Sevillan, urte berean, hebrear biblia kopuru handi bat. 1500ean, arabieraz idatzitako milaka ale

Zentsura

erretzeko agindu zuen Granadan Cisneros kardinalak. 1502an, atzerritik liburuak inportatzea debekatu zen, eta 1558an zigor larriekin eta are heriotzarekin kastigatu zen Inkisizoak zentsuratutako edozein liburu edukitzea. Urte bat geroago, "Autore eta Liburu Debekatuen Indexa" sortu zuen Trentoko Kontzilioak, eta 1966. urtea arte egon zen indarrean. Index horretan sartutako obren zerrenda hain zen zabala, non, lau mendez, ia ez baitzen izan bertan agertzetik libratu zen autorerik, pentsalaririk, filosoforik edo zientzialaririk.

Inork uste badu joanak direla garai haiek, oker dabil.

Aurten berton, 2010ean, liburu denetatik kendu da José A. Pagola euskal apaiz eta teologoaren *Jesucristo, una aproximación histórica* liburuak, Tarazonako gotzainak kentzeko agindua eman baitu, Gotzainen Konferentziaren eta Vati-

kanoren oniritziarekin. Obra horrek *Nihil obstat e imprimatur* delakoa jaso zuen zortzigarren edizioan; hau da, moral eta doktrina ikuspuntutik argitaratua izateko onespren ofiziala, Uriarte gotzainak emana.

Beste garai batean, jendaurrean atzera egitera derrigortuko zuten autoreak, baita erretzera kondenatu ere. Uriarte gotzaina eta obra "heretikoa"ren irakurleak ere erre egingo zituzten. Baina orduan liburuak ez ziren iristen jende gehienengana, eta hedabideak eta baliabide teknologikoak ere ez ziren oraingoak. Orain arte saldutako 60.000 aleak askotxo dira Pagolaren pentsamendua gal dadin menderen mendetan amen.

Argitara zenean irakurri nuen liburuak, baina irakurri egingo dut berriro. Izan ere, ez dago ezer kitzikagarriagorik hau baino: kontra egitea pentsatze hutsa zuzenean infernura eramango zaituen bekakua dela sinesten zen lehengo garai haiek, garroteen eta ahokoen garai on horiek, faltan botatzen dituztenei.

Eskola 2.0 proiektua

Hitz egin dezagun polemikaz josita dagoen proiektu batez: eskola 2.0. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren esku dagoen egitasmoa da, gauza gogoangarri guztiak bezalaxe. Horren ondorioz, EAEko zentro publiko zein probatueta Lehen Hezkuntzako bosgarren mailako ikasleek ordenagailu eramangarri bana edukiko dute. Zertarako? Internet eta Teknologia Berrien munduan trebatzeko, noski. Era berean, ohiko arbelak arbel digitalari utziko dio lekua eta, ondorioz, badirudi desagertuz joango dela gutako askok ezagutu dugun irakaskuntza-sistema. Berez, polemika sortzen



SARA GÁNDARA
(Kazetaria)

duena ez da egitasmoa bera, sareko konexioa baizik. WiFi-a, alegia. Labur azaltzearren, guraso asko beldur dira uhin elektromagnetikoek sor dezaketen kutsadura dela eta, minbizia eragin dezakeelako. Kezkatzeko moduko kontua da, baina, zintzoak izan gaitezen, urteak daramatzagu uhin elektromagnetikoekin elkarbizitzan, aspaldiko kontua da. Egia da haurren osasuna dagoela arriskuan, baina ez dut uste larri arduratu behar dugunik. Gainera, EHUKo Telekomunikazio Ingeniariei Eskolak egindako ikerketa batek dio WiFi uhinak ez direla kaltegarriak. Sinistu dezagun, ezta?





Aparkalekuak eta kirol eremu bat egingo dira Kurtzen

Lezamako Udalak jakinarazitakoaren arabera, laster hasiko dira lanak Kurtze auzoan. Bertan aparkaleku berriak eta kirol eremu bat egingo dira. Uste da lanok uda osterako egongo direla amaituta.

Guztira, 46 aparkaleku egingo dira. Haietako bi mugikortasun murriztua duten pertsonentzat izango dira. "Horrela arindu egingo da inguru horretan dagoen aparkatzeko arazoa, ibilgailuak oinezkoentzako tokietan egoten direlako sarritan", esan dute Udaletik. Aparkalekuak kirol eremu berriaren ondoan egingo dira. Eremu hori erabilera askotako zelai bat izango da, areto-futboleko nahiz eskubaloian jokatzeko aukera emango duena. Zelai hori 40 metro luze eta 20 metro zabal izango da.

Beste alde batetik, espaloiak egingo dira zelaira heltzeko, eta argiak jarriko

dira. Erreka husteko kanalak gaur egun dauden bezala utziko dira, eta aparkalekuen eremuan PVCzko kolektorea ipiniko da, euri urak biltzeko. Lanetan 125.000 euroko inbertsioa egingo da. Udalaren arabera, Kurtze auzoko herritarren bizitza kalitatea hobetu egingo da lan hauei esker.

Herri-lanak

Beste alde batetik, Udalak 264.106 euro jaso ditu Tokiko Enplegu eta Iraunkortasunerako Estatuko Funtsetik. Dirukopuru horren zati bat, 107.296 euro, Aretxabaletatik Isuzkitzara bitarteko hornidurako sarea konpontzeko erabiliko da Aretxalde auzoan. Beste zatia herriko zenbait lekutako estolda-sarea berritzeko erabiliko da. Lanak batez ere Garaioltza auzoan izango dira.

"Laburbira" Deriora ailegatuko da

Topagunea euskara elkartearen federazioak Film Laburren Zirkuitua antolatu du zazpigarren aldiz. Zirkuitua apirilaren 12tik maiatzaren 16ra bitartean egingo da eta nobedade moduan, aurten izena aldatu diotela aipatu behar da. Hemendik aurrera zirkuituak "Laburbira" izango du izena.

"Laburbira" apirilaren 22an ailegatuko da Deriora, Tximintx euskara elkartearen eskutik. Film laburren emanaldia arratsaldeko 8etan izango da Gurea Aretoan, eta bertan lan hauek jarriko dira ikusgai, doan: Koldo Almandozen *Ahate pasa*; Telmo Esnalen *Amona putz!*; Jose Luis Barredo eta Iñigo Garcia-ren *Clark eta Boris*; Arkaitz Basterraren *Esaiok*; Iñigo Sanzen *Nora zoaz*; Urko Mauduit eta Ioseba Salaberri-ren *Odisea etxaldean*; eta *Zorion hutsa*. Azken hau Estibaliz Arizek, Itziar Faidok, Janire Fernándezek, Vanessa Martínek, Gorka Montielek eta Malen Ulaziak osatutako taldeak egin du, karrera amaitzeaz zuek.

Emanaldian aipatutako zuzendarietarikoa bat egongo da eta ikusleek hari galderak egiteko aukera izango dute. Ekimena Derioko Udalak babestu egiten du.



Ikastolen aldeko jaiak

Maiatzaren 9an Herri Urrats Iparaldeko ikastolen aldeko jaiak egingo da Senperen. Eta maiatzaren 30ean Ibilaldia Bizkaiko ikastolen aldeko jaiak hartuko du lekukoa. Ibilaldia Bermeon izango da aurten. Aurreko urteetan bezala, Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak autobusa jarriko du jaialdi bietara joateko. Herri Urratsera joateko, apirilaren 19tik maiatzaren 6ra bitartean eman behar da izena, bakoitzaren udal-txean edo Mankomunitatean bertan. Eta Ibilaldira joateko, apirilaren 19tik maiatzaren 27ra arte. Maiatzaren 6an eta maiatzaren 27an arratsaldeko 3ak arte bakarrik egongo da izena emoteko aukera. Pertsona bakoitzeko bost euro ordaindu behar da. Bost euro horietatik hiru euro fidantza moduan hartuko dira, eta horiek bidaiara joanez gero itzuliko egingo zaizkie parte-hartzaileei.


Pilota bultzatu nahi dute Zamudion



Arbolantza Zamudioko Kirol Elkarteak Pilotaren Eguna antolatu du lehenengo aldiz, martxoaren 28rako. Ekimenak "zamudioztarren artean pilotarako grina bultzatzea du helburu, eskupilota gazteen artean zabaltzea eta zaletasuna sortzea. Erakutsi nahi dugu Zamudion futbolaz gainera eskupilota ere badagoela. Eta, nola ez, ondo pasatzea", azaldu digu Iñigo Amariak elkartearen arduradunak.

Pilotaren Egunari goizeko 10:30ean emango diote hasiera. Besteak beste, eskuetan takoak jartzen eta pilota goxoak egiten ikasteko tailerrak egongo dira, eta hainbat joko egingo dira pilotako modalitate ezberdinen gainean: eskupilota, zes-

ta-punta eta pala, esate baterako. Eguerdiko ordu batean afizionatu mailako pilota partida izango da. Frontoian Asier Aurrenetxe eta Edorta Bilbao arituko dira Iñigo Aurrenetxe eta Dani Arkotxaren aurka. Amariak egun horretarako antolatutako ekitaldietan adin guztietako lagunak batzea espero du, gazteak zein nagusiak. "Nahi duenak du hurbiltzeko aukera, nahiz eta Zamudiokoa ez izan. Datorrenari ongi etorri handia emango diogu". Gaur egun 10 ume dabilta Zamudioko Pilota Eskolan. "Lan gogorra egiten ari gara umeek eskolan jarrai dezaten. Era honetako ekintzei esker horiek motibatzea espero dugu".



Institutua handitzea lehentasuntzat hartzeko eskatuko zaio Hezkuntza Sailari

Azken hilabeteotan, Derioko Institutuko eta Txorierriko ikastetxeetako gurasoen elkarteak kezkatuta azaldu dira, ikastetxeok etorkizunean izan dezaketen garapena dela-eta. Izan ere, herritarren kopuruak gora egin du udalerrri guztietan, eta horrek neurriak ahal bait arinen hartzea eskatzen du, ikastetxeok duten lekurik ezaren arazoa handitu ez dadin.

Mankomunitateko Udalek hainbat batzar egin dituzte ikastetxeetako zuzendaritza-taldeekin eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin, ahalik eta lasterren eraikin berriak egin edo daudenak handitzeko.

Derioko Udalak, esate baterako, 90.000 euro eman zituen duela urtebete baino gehiago, autobia ondoan lursailak erosi eta institutu ondoan dagoen ibilgailuen parkinga bertan jartzeko. Parkinga gaur egun dagoen lursaila institutuaren handitze-obrak egiteko erabil daiteke eta Udalak lursail hori doan utzi dio Hezkuntza Sailari. Zamudioko Udalak ere doan eskaini du lursail urbanizagarria, han institutu berria eraikitzeko.

Hezkuntza Sailetik jakinarazi denez, alde batetik Zamudion institutu berria eraikitzea aurreikusi dute eta bestetik, Deriokoa handitzea. Lehenengoak Zamudio. Lezama eta Larrabetzuko ikasleak



hartuko lituzke, eta bigarrenak Derio, Loiu eta Sondikakoak.

Derioko Institutuko zuzendaritza-taldeak, ikastetxeko gurasoen elkarteak eta Udalak gai horri buruzko informazio zehatza emateko eskatu diote Hezkuntza Sailari. Horrela, obrak noiz hasiko diren jakin nahi dute eta Txorierriko eskola-mapa no-

la zehaztuko den. Era berean, gutuna aginduko da Bizkaiko Ordezkaritzara, Derioko Institutua handitzeko obrei lehentasuna emateko eskatzeko. Azaldu duten bezala, arazorik handiena hor dagoelako. Gutuna Txorierriko gurasoen elkarteek, ikastetxeetako zuzendaritza-taldeek eta alkateek sinatuko dute.



GAMINIZ
JATETXEA

Telefono: 944 281722
email: gaminiz@gaminiz.com

Residencial 312, Paseo Intermunicipal
48940 Leizorriben (Leizor)
www.gaminiz.com



ALBERTO

ALDOBRONDI 1
 100% POLYURETHANE
 100% POLYURETHANE



AM2
Internationales
Management / Journal

ZAM LMD MOTOR


CONCEALMENT:
TAKING IT TO THE NEXT LEVEL

800.465.1010
800.465.1004

**At: Torrance
P.O. Box 1
80500
Torrance**



BAR TIKI
SPECIALTY MEXICAN CUISINE



Mauritania, ikusgai Sondikan

Jon Goikouria sondikoztarrak eta bere lagunek bidaia zorigarria egin zuten udan, Mauritaniako basamortuan zehar. Emozioz betetako abentura izan zen eta sondikoztarrei ez ezik txorierritar guztiei ere emango diete horren berri apirilean. Horrela, apirilaren 15ean bidaia gainera bideo-proiektzioa egingo dute Sondikako Kultura Etxean. Ekitaldia arratsaldeko 7:30ean izango da eta abenturari buruzko azalpenak emateaz gainera, ikusleen zalantzak argitu ere egingo dituzte bertan.

Beste alde batetik, bidaian ateratako argazkien artean 50 onenak aukeratu dituzte eta ikusgai jarriko dituzte liburutegian, apirilaren 12tik 30era bitartean. Argazki erakusketa txanda bitan egingo dute: bata apirilaren 12tik 21ra bitartean eta bestea, apirilaren 22tik 31ra bitartean.

Liburuaren Eguneko ospakizunak

Apirilaren 23an Liburuaren Nazioarteko Eguna izango da, eta, data horren inguruan, hainbat ekitaldi izango ditugu gurean.


Larrabetzuko liburutegian, esate baterako, erabilitako liburu azoka txikia antolatuko dute apirilean zehar. Gainera, oparitxoak zozketatuko dituzte liburuak maileguan hartzen dituztenen artean. Toti Martinez de Lezea idazleak manifestu bat irakurriko du apirilaren 12an, 12:00etan, Anguleri kultur etxean. Eta horren ostean, Antzokiko istorioak umeentzako ikuskizuna eskainiko da. Arratsaldean "Liburuaren historia" erakusketa jarriko da ikusgai. Apirilaren 23an, arratsaldean, kiosko bat ipiniko da eskolako patioan, eta, besteak beste, umeentzako komikiak, ipuinak eta liburuak egongo dira han. Beste alde batetik, Eider Rodriguezen *Haragia* liburua hizpide edukiko dute apirilaren 22an, Literaturaz Berbetan ekimenaren barruan. Saioa arratsaldeko 8etan izango da Angulerin.

Edorta Jimenezek "Irakurketa bultzatuz" hitzaldia eskainiko du apirilaren 23an, goizeko 11etan, Derioko liburutegian. Egun berean, baina arratsaldeko 6etan, "Angela Figuera gogora ekarri" poesia-errezitaldia egingo da liburutegian. Errezitaldian Fernando Zamorak, Mari Carmen Perezek eta herriko musikariek hartuko dute parte.

Lezaman, ipuin kontalaria eta txo-

txongiloen tailerra antolatu dituzte apirilaren 23rako. Ekitaldiak 18:30etik aurrera egingo dira liburutegian.

"Musika-ipuinak" familia osoari zuzendutako ekintza da, eta hori Zamudioko liburutegian izango da apirilaren 24an, goizeko 11:30ean. Loiuko liburutegian, ipuin-kontalaria arituko da apirilaren 22an, arratsaldeko 5:30etik aurrera.



[illegible]

A man with dark hair, wearing a red and black tracksuit with white stripes on the sleeves and black shorts, is walking on a blue carpet. He is holding two large, ornate trophies, one in each hand. The background is a plain, light-colored wall.

A man wearing a black t-shirt and a black cap is stirring a large pot of soup. A group of people, including a man in a red shirt and a man in a black shirt, are standing behind him, watching the process. The setting appears to be a kitchen or a food preparation area.





Zuritu egin du

Eguraldiak okerrera egiten duenean daude ederren Txorierriko bazterrak.

Argazkia: Iñaki Aranguiz (DAT, Derioko Argazki Taldea)

Elkartzeko lekuak zure inguruan
Gureak, 2010-11-01tik
Gureak, 2010-11-01tik

Telefonoak:
91 414 08 10
91 414 08 11 (Bilakaia)
91 414 08 12

Elkartzeko lekuak zure inguruan
www.agrojardinastikene.com



A collection of agricultural machinery, including a large green tractor at the top and several smaller red and white tractors below it, arranged in a semi-circle.

agrojardín Astikene

Elkartzeko lekuak zure inguruan
Gureak, 2010-11-01tik
Gureak, 2010-11-01tik

Elkartzeko lekuak zure inguruan
Gureak, 2010-11-01tik
Gureak, 2010-11-01tik

A row of logos for FCM, Agros, and Honda, with the Honda logo in red and the others in black.



“Errekonozimendua eta zor deutsaz literaturak e

JOSUNE MUÑOZ | literatura-kritikaria

Josune Muñoz literatura-kritikaria da eta 2004. urtean Skolastika egitasmoa ipini eban martxan. Skolastika literatura-gune feministea da eta Historian, liburuetan... agertzen ez diran emakume idazleak agerrarazoten dabez bertan. Emakumearen Egunaren haritik, Josune Zamudion izan da emakume eta literaturearen ganean berba egiten.

t: Itxaso Marina / a: Lagatzu

Zelango ondorioa atera dozu emakumeek egindako hainbat eta hainbat behar aztertu ostean?


Emakumeon literatura badagoala. Literatura idatzia gehien jorratu dogun arloa ez da, beharbada, baina garrantzia handia izan dogu ahozko literaturan. Emakumeok beti egon gara literatura munduan. Beste alde batetik, leku guztietan igarri dot emakumeon literaturearen kontrako jarrera bat dagoala, mesprezuko kutsu bat.

Emakumeon literatura badagoala dinozu; idazle asko, emakumeak tartetan, ez dagoz ados.

Emakume idazleek ondo ezagutzen dabe emakumeon literaturearen kontrako aurreretxia, eta eurek literatura hori ez dabela jorratzen gurago dabe esan. Baina badago, jakina baietz. Eta ez da bakarrik gaietan nabarmentzen, gaiak lantzeko erean, pertsonaiak agertzeko erean, estiloan... be bai. Kontua da kritikariok tresna gehiago dogula aurreretxi hori aurre egiteko, eta emakumeon literatura ondo aztertu eta merezi dauen duintasuna emoteko.

Zein izan da emakumeak egindako ekarpena?

Gure ekarpena ezinbestekoa izan da ahozko literaturan, gure beharra hori transmitidu eta mantentzea izan dalako.



Eta kontuan hartu behar dogu idatzizko literatura ahozkotik datorrela. Literatura oso ikuspegi zabaletik ikusi dogu beti, eta transmisino eta mantentze-beharretan ibili gara, irakurtzeko zaletasuna bultzatzen, liburuak maileguan ixten, argitaletxeak martxan ipinten, literaturara deditzeko dirua ipinten... Emakumeok gizonen jarrera literarioak bultzatu egin doguz beti. Adibidea esatearren, ilustrazi-
noa ez zan izango garaiko *mademoiselle* barik. Emakume horreek energia, dirua

duintasuna makumeari"

eta lekua ez eze, estimulua eta indarra be jarri eben gizonen literatura bultzatzeko.

Zer zor deus-beraz, literatura munduak emakumeari?

Alde batetik, errekonozimendua; eta bestetik, duintasuna. Mesprezuzko jarra hori behingoz bukatzea, literaturaren historian agertzea eta gaur egungo curriculumean sartzea. Hori guztia zor deus-kue, ez gagozalako ez manualetan, ez unibersidadean, ez institutuetan...

Ze bardintasun dabe hemengo eta hango emakumeon literaturek?

Ahozko literaturan dogun garrantzia eta gaiak jorratzeko ere, banaka batzuk aitatzearen. Gizonek mundu bat kontaten dabe; eta guk beste bat: geurea. Gure sentsibilitatea, jorratzen doguzan pertsonaiak...

Euskal emakumeon literaturak badau ezaugarri berezirik?

Zorionez, eta lehenengo aldiz Historian, badagoz hiru belaunaldi ezbardinetako emakumeak beharrean: Mariasun Landa, Miren Agur Meabe eta Uxue Alberdi, belaunaldi bakotzeko adibidea ipintearren. Bertsolaritzan be beste duintasun eta maila baten sartu gara. Hor gagoz eta ziur nago geratzeko gagozana. Gero eta eleberri gehiago argitaratzen dira... Baina gure ilustratzaileen kopurua eta kalidade altua be azpimarratuko neukez. Momentu ona da arlo baten zein bestean. Istoria onak irudi on eta egokiak batera egotea atarramendu handiko fenomeno dala uste dot. Orain bakarrik faltaten jaku komikira jo eta horretan ibilten hastea.

Eskubideak bagabilz apurka-apurka hainbat arlotan lortzen, literaturan be bai?

Bai eta ez. Sariak, akademia, prestigiozko lanpostuak, unibersidadea... gizonen eskuetan dagoz oraindino. Eta merkaduan, bai, emakumeok saldu egiten dogu, baina hori beti egin dogu. Emakumezkoen literatura oraindino oso urrun dago gizonen kanonetik. Beraz, edo



*"Emakumeok gizonen
jarrera literarioak
bultzatu egin
doguz beti"*

*"Gure literatura
oraindino oso urrun
dago gizonen
kanonetik"*



beste kanonen bat sortzen dogu, guztiz parean dabilena, edo ahaleginetan jarraitu beharko dogu gizonen kanon horretan sartzeko. Halanda be, sentsibilitatez sentsibilitate gauzak aldatzen ari dira, baina nik espero baina askoz astiroago.

Emakumezkoen literaturagazko mesprezuzko jarrera azpimarratu dozu. Zergaitik gertatzen da hori?

Emakumeona dalako, besterik ez. Beharra irakurri barik kritikau egiten da gehienetan. Badagoz adibide asko, baina bat jarriko dot: eleberri erromantikoak. Gizonek ez dabe genero hori irakurtzen; halanda be, badakie gaxa dana. Ganera, genero beragazko zein irakurleagazko mesprezuzko hiztegia erabiltzen dabe. Zergaitik? Oinarriz emakumeoi zuzendutako literatura dalako, emakumeon gauzak baino kontaten ez dituen.

Igaz Desira/Plazer poema erotikoen bilduma argitaratu zenduan Igor Estankona eta Edorta Jimenezagaz batera. Zein da emakumearen presentzia horretan?

Idazleen kopurua sartzeko erabagia Edortak hartu eban, eta berak baimen osoa emon eustan behar beste poeta liburuan sartzeko. Emakumeak %40 dira bilduman, baina horrek ez dau esan gura euskal emakume poetak %40 diranik; %9-10 baino. Ondorioz, liburuan oso ondo adierazoten da euskal emakumeon erotismo mundua. Sorpresa, ustebako, harridura eta gustu handiko materiala da; irakurtzera animau gura dot jentea.



"Argazkilaria izan nahi dut"

ANER MENTXAKA | argazkilaritza-ikaslea

Aner Mentxakak ikus-entzunezko errealizazioa ikasi zuen Andoainen eta lan batzuetan aritu ostean, langabezia gelditu zen. Neskalaguna Bartzelonara joan behar izan zuen iaz, eta gazte derioztarrak ez zuen alferrik galdu betidanik gustatu zaion hirira joateko aukera.

t: Gaizka Eguskiza / a: A.M.

Zer egiten zabilta Bartzelonan?

Iaz langabezia gelditu nintzen eta neskalaguna hona etorri behar izan zen. Beraz, berarekin etortzea erabaki nuen. Izan ere, Bartzelona oso hiri atsegina iruditu zait beti. Gaur egun argazkilaritza ikastaro bat egiten nabil, argazkilaritzak betidanik erakarri nau-eta. Gainera, argazkilaritza ikasteko, Bartzelona baino leku hoberik ez dago.

Zelakoa da ikastaroa?

Estudio-argazkilaritza jorratzen dugu: natura hila, erretratuak, publizitate-argazkiak... Argia non eta zelan jarri eta horrelakoak ikasten ditugu bertan.

Espero duzunarekin egin duzu topo Bartzelonan?

Ez naiz espero nuen lekuan bizi: ez naiz Bartzelonan bertan bizi, alboko herri

"Udan itzuliko naiz Euskal Herrira, baina oraindik ez dakit bertan zer egingo dudan"

txiki batean baizik. Herri lasaia da eta neska eta biok oso gustura gaude. Bartzelona hiriari dagokionez, espero nuen bezain ondo dagoela esan behar dut. Ikastaroa garestia da eta dena da berria, baina poz-pozik nago.

Eta irudia zergatik interesatzen zaizu? Nondik datorkizu zaletasuna?

Ez dakit. Ikus-entzunezko mailan ibili naiz beti, eta gustura, gainera. Baina orain



Aner Maputxeen herrian izan zen 2007an. Irudian bertako lonkoa, hau da, agintaria.



hasi naiz argazkilaritza lantzen eta gaur egun argi daukat argazkilaritza gehiago gustatzen zaidala. Argazkilaria izan nahi dut.

Baina argazkilari ere ibili zinen Korrikan, ezta?

Bai, azken Korrika bietan atera ditut argazkiak. Txorierriko etapetan izan zen, soilik, baina oso esperientzia polita izan zen. Furgonetan ibili nintzen eta Korrika beste ikuspuntu batetik gozatzeko aukera

izan nuen.

Eta zer egingo duzu etorkizunari begira?

Ikastaroa maiatzean amaituko da eta gero Euskal Herrira itzuliko gara. Beraz, oraindik ez dakit zer gertatuko den. Bartzelonan eskaintza zabala dago eta heringo argazkilariek espezializazio ederra dute: ezkontzak, natura hila, publizitatea.... Etxean, aldiz, oso merkatu txikia dugu, eta profesionalak denetarik egin behar dute.

Askapenaren taldekidea

Aner derioztarra orain hasi da argazkilaritza ikasten, Bartzelonan, baina argazkiak egitea betidanik gustatu zaio. Bidaiak egitea ere izugarri atsegin du, eta zaletasun bi horiek uztartu egin ditu Askapena talde internazionalistari esker. Kubara txikitatik joan nahi izan zuen, eta Maputxen herria (Txilen) ezagutzeko aukera ere izan zuen. Iaz Venezuelara joan zen neskarekin, euren kabuz. Bertan argazki kamara lapurtu zioten, eta, Kataluniara joan baino lehen, beste bat “arin-arin” erosi behar izan zuen.

“Leku ezezagunak ikustea gus-
tatzan zait. Euskal Herrian bizi du-
gun egoera politikoa Europako
beste leku batzuetan ere gertatzen
da eta antzekotasunak bilatzen
ditut kanpora joaten naizenean.
Jendearen bizimodua ere interesa-
tzen zait: kultura, ohiturak... Ameri-
ketan ibili naiz, batez ere, hizkuntza
aldetik errazagoa baita. Kontrasteak
ere politikak dira”.

Aner Txilen egon da, eta duela gutxi bertan gertatutako lurrikarak hunkitu du. Baina are gehiago hunkitzen dute “gure eskuetan ez dauden gertakizunek”. “Ni ez nintzen egon lurrikara gertatu zen inguruan. Lurrikara tamalgarria da, baina baita saihestezina ere. Hala ere, beste gauza tamalgarri batzuk ere gertatzen dira: esaterako, nik Txiletik alde egin eta gero, poliziak nik ezagututako gazte bat hil zuen, eta hori benetan penagarria izan zen niretzat”.

FIBRAS Y REFORMAS
C/ P. VALLEJO, 100. 07015 S. CARLES DE LA R. (TARRAGONA)



Corrotba

Revoluciones Integradas
GRUPOS DE COOPERACIÓN

Industria de la Construcción, Plásticos
DE LOS MATERIALES
C/ P. VALLEJO, 100. 07015 S. CARLES DE LA R. (TARRAGONA)
TEL. 071 575 100

GUEDAN
servizi da depositare, s.a.
via dell'Industria, 10 - 20139 Milano
- TELEF. 02/581011 - FAX 02/581012

IMMAGINE-MILAN RINGHIERA
Tel. 02/40 21 021 - Fax 02/40 21 041



Nor bere ofizioan

San Crispin zapatarien zaindaria da eta horrek leku pribilegiatua dau Jon Gastañagaren dendan. Tailua enkarguz eskatu eutsen artisau batzuei, santuaren irudia ez ebalako inon topaten; argazkietan baino. Sondikako zapataria urte bi barru jubiladuko da; edo ez, beharbada. Konfesau dauanez, oraindino ez dau argi zer egingo duan momentua ailegaten danean. "Hori gogoaren arabera erabagiko dot".

t/a: Itxaso Marina

Jon zapatari bakarra da Sondikan, baina herrian ez eze Txorierrri osoan be bada ospetsua. Izan be, bezeroak Larra-betzutik, Lezamatik eta Zamudiotik be joaten jakoz. "Ea zapatari ona nazen? Ba, ni ez naz horri erantzuna emon behar deusana. Gatxa da guztiak pozik izatea. Nik ahaleginak egiten dodaz".

Gustura dago beharragaz. "Osterantzean, ez dozu ezer egiten. Nire bizimodua zapatakaz da". Ogibidea dala 40 urte ikasi eban. Jon galdaragintza-lantegi baten egiten eban behar, baina istripua euki eban eta bizimodua beste era baten ateratea pentsau behar izan eban. Zapatari-ogibidea profesional batzuegandik ikasi eban eta ondoren, negozioa jarri eban Larrakoetxen, Loiu. Hogei urte emon ebazan han. "Beharra urtean zazpi hilebetea neban. Oporraldietan, eskolak-eta itxita egozanean, behar gitxi egoan. Beste alde batetik, negozioa neban lurra ez zan nirea, herriarena baino. Eta handik alde egin behar izan neban. Herrian bertan lokal bat emongo eustela esan eustan Udalak, baina nik beste leku baten begiratzea nahiago izan neban". Aukera batzuk aztertu ostean,

*"Sektorea kili-kolo
dabil euroa
ezarri zanetik.
Ekonomia-krisiak
areagotu egin
dau egoera"*

negozioa Sondikan martxan ipintea erabagi eban. Beste 20 urte pasau dira harrezkero.

Sektoreak kili-kolo dagoala dino Jonek. Eta euroak eragina zuzena euki daua horretan. "Egoera antzekoa da sektore guztietan. Euroak produktuak garestitu egin ditu eta jenteak leku batetik edo bestetik kendu behar dau hil amaierara ailegeteko. Jarraitzen da zapatak konpontzera ekarten, baina kostaten da bila etortzea". Ekonomia-krisiak egoera areagotu egin dau.

Urina bezala

Gaur egungo zapatak ez dira atxina-koak baizen onak, Jonen ustetan. Orain iraungite-data daben materialak erabil-





ten dira eta sasoi baterako erosten diran zapatek ez dabe hurrengorako balio. "Neguko zapatak erosten dozuz aurton eta zola "urina bezala" dabe hurrengo negurako. Zola hori ezin da ez itsatsi, ez iltzartu, ez josi. Eta barria ipini behar da. Baina zola barria ipini baino, merkeago ateraten da zapata barriak erostea". Zapatariak fabrikatzaileen kontrakoak dirala azaldu dau Jonek, "eta ez jake interesaten guk euren zapatak konpontzea".

Zapatak konpontzeaz ganera, hainbat produktu saltzen ditu dendan: kordioak, barne-zolak, betuna... Bezeroak kalidadea nahiago dauala aitatu dau. "Errazago saltzen ditut 15 euroko barne-zolak, 2,5 eurokoak baino". Larrakoetxeko dendan zapatak salgai be bazituen, baina Sondikakoan ez jartea erabagi eban. "Denpora luzea emoten dozu zapatakaz dendan eta ez da errentagarria. Ganera, bezeroa pozik lotzen ez bada, zu be ez zagoz pozik. Denda kendu nebanean, saldu barik nebazan zapata guztiak baltz bati emon neutsazan. "Ateraten dozuna, zuretzat, esan neutsan". Berak zapatak sortzea be ez deutso inoz bere buruari planteau. "Konpetentzia handia dago eta nire zapatak guratsu bik baino ez leukiez jantziko. Ez dau merezi".


Behar bereziak

Pozik dago bezeroakaz eta beharra ez dau faltan. Zapatak ez eze narruagaz zeri-

"Zapatariak fabrikatzaileen kontrakoak gara eta ez jake interesaten guk euren zapatak konpontzea"

kusia dauan edozein gauzaren konponketak be egiten ditu: boltsak, garrikoak... "Kremlerak izan ezik; buruhauste handiak emoten dabez horreek!". Eta konponketa bereziak be egin ditu: helikoptero baten eserlekuen zorroa edo zaldiz ibiltzeko zelak, batzuk aitatzearren.

Berba egiten dogun bitartean, burura etorri jako dala urte batzuk gertatutako pasadizu bat. Behin, Audi baltz bat gelditu zan denda ondoan eta handik oso ondo jantzita egoan gizon bat atera zan. Dendara sartu eta zapatei piliak jarri gura eutsezala esan eutsan, laban egiten ebelako. Baina konponketa momentuan bertan egin behar eutsala, ez ebalako beste zapata pare bat. "Egunkaria itxi neutsan entretenidua egoteko, eta beharra amaitu nebanean, kreditu-txartelagaz ordaindu ahal eban galdetu eustan. Nik ezetz erantzun neutsan, baina hurbil banketxeak egozala. Oraindino ez da bueltau!".



“Txorierri izena ez dot inolako agiri historikoan aurkitu”

SABIN ARANA | historiazalea

Itsasoan 20 urtean egin eban behar, baina oinak herriaren sustraian ipintea erabagi eban aspaldian. Larrabetzu honetako herriaren historiaren zati bat partekatu dau gugaz.



t/a: Itxaso Marina

Zergaitik hasi Larrabetzuko historia arakatzeko?

Herri txiki baten historia oso garrantzitsua aztertzen dabilako. Nik historia unibersala be irakurtzen dot, jakina; baina gauza handiak baino, gauza txikiak interesaten jataz gehiago: jente xumearen bizimodu. Eta hori Larrabetzuko agiri zaharren bitartez ezagutzen ahalegintzen naz. Agiriok dirudunek egiten ebezan, halango paperak aterateak dirutza balio ebalako. Ondorioz, tartean dagozan hitzakaz saiatu behar da ulertzen zelan bizi zan jente xumea.

Zeintzuk dozuz iturritzat?

Orain dala 30 urte hasi nintzan Derioko eleizako agiriak aztertzen. Bilboko Artxibategiak be kontsultau egiten dodaz; hara asteen bitan joan ohi naz. Baina beste batzuk be bisitau dodaz: Indietako Artxibategia, Sevillan; eta Chancilleriako eta Simancaseko Artxibategia, Valladoliden. Horreetara inoiz bueltatu behar naz, oraindino dokumentu asko badagozala arakatzeko.

Azterketak ez du inoiz amaierarik?

Ez! Nire bizitza osoan zehar ez dot nahikoa astirik izango dokumentazio guztia aztertzeko. Ganera, jakin izan dot Gernikan beste artxibategi bat dagoala, eta han lur eta etxeen salmentakaz lotutako informazioa batu dabela. Joan beharko naz. Datuak Derion arakatzeko hasi nintzeanean, jatorrizko dokumentuak kontsultatzen nebazan. Baina gaur egun mikrofilmen bitartez egiten da eta ez da gauza bera. Lehen historiaren zati bat esku artean izatea legez zan.

Zein da Larrabetzuren ganean topatutako daturik zaharrena?

1340. urtearen ingurukoa da, Zugazti familiaren bigarren leinuko bat eskribaua izentau ebenekoa. Beste alde batetik, uria 1376. urtean sortu zan. Baina datu hori zehaztea merezi dau. Egia esan, uria 1415.ean sortu zan, baina garai hatan urteak neurtzeko modua aldatu eta atzera



*“Uria 1376. urtean
eratu zan, burdinoletan
interesak ebezanek
halan eskatuta”*

Bilbok dau erantzuna. Bilbo hazten hasi zan eta Bizkaiko jauntxuek, Larrabeztukoak tartean, Espainiara alde egin eta hangoakaz egin ebezan aliantzak. Bilboko portua garrantzizko elementu bihurtu eta merkataria, burgesak, hasi ziren indarra izaten. Bilbo inguruko mobimentuari esker indartu zan uriaren figurea XVII. mendearen hasieran. Batzar Orokorretan, ordura arte leinu etxeek edo Eleizaldeko jenteak poterea baeben, hortik aurrera Bilboko merkatariek hartuko eben leku-koa. Halanda be, Bizkaijan, uriko eta Elei-

Lobby Area

Bedroom

Bathroom

Breakfast Area

SUITE DELUX

STAY IN THE CITY, STAY IN THE SUITE

Colchones de Terciopelo La Suite más PG Elle es la más cómoda al dormir	Colchones de Arcoángel Perfumes de diseñador Un perfume exclusivo	Loft para Kiffon y Donda Un espacio único Un lugar para ti
--	--	---

www.suite-delux.com



zaldeko batzarrek XVII. mendearen erdialdera arte ez ziran egiten hasi.

Zein da topau dozun daturik bixiena?

Nik Larrabetzuko garapena esaten deusadana. Garapen hori burdinolen eskutik etorri zan. XV. mendean lau burdinola egozan bertan, eta hori oso datu bixia da, Larrabetzu oso herri txikia dala kontuan hartzen badogu. Burdinoletatik horreen jaubeek ez eze herritar askok be ateraten eben bizimodua. Baseritik ozta-

ozta ateraten zan jateko, eta herritarrek bertoko basoetan bildutako egurraz egindako ikatza saltzen eutseen burdinoletako jaubeei. Kintal bat burdin egiteko, lau ikatz zama ziran beharrezkoak... beraz, atera kontuak! Beste alde batetik, Larrabetzuko burdinolaren jaubea zan Euskal Herriko uri bakarra zan, beste guztietan errotak baziran be.

Inoz Txorierriren ganeko ikerketa egitea pentsau dozu?

Beno, nik batez be Larrabetzuren ga-

neko datuak arakatzen dodaz, baina, ez garanez bakarrik bizi, ikerketa horretan Txorierriko datuak be topau dodaz: Lezamako jentearen ganekoak, Zugazti eta Zamudio leinuek bat egin ebenekoak... Baina nik uste dot Txorierri XX. mendean asmautako izena dala. Ez dot atxinako dokumentuetan ezer topau. Ganera, Asua bailara Lezaman hasten da, han Asua ibaia dagoalako. Eta Larrabetzuko errekek, barriz, Ibaizabal ibaira jotzen dabe. Larrabetzu Ibaizabal bailarakoa da eta

Barrio
Barrio

Barrio
Barrio

LAPIKO

arrazimatu- eta dekorazio-garbitzaileak

*«Gure zerbitzuak eraberritzen dituzte»
«Gure zerbitzuak eraberritzen dituzte»*

ERAKUNTZA BERRITZA eraberritzen dituzte
 berrikuntza-zerbitzuak: **PREZIO HERRAIA**
 Alde berria eta berrikuntza garbitzaileak

30 años

☎ 91 453 44 81 | ☎ fax 91 453 44 82 | ✉ info@lapiko.com, info@lapiko.es | www.lapiko.com

Kitchenakuk

Modulak, armarioak, koadroak, koadroak, koadroak

Modulak, armarioak, koadroak, koadroak, koadroak

☎ 91 453 44 81 | ☎ fax 91 453 44 82 | ✉ info@lapiko.com, info@lapiko.es | www.lapiko.com

*"Uriko eta Eleizaldeko
batzarrak XVII.
mendearen erdialdera
arte ez ziran
batera egiten hasi"*

*“Larrabetzuko
garapena burdinolen
eskutik etorri zen”*

*“Larrabetzuarrak
Ibaizabal bailarakoak
gara eta Arratiarako
joerea euki dogu beti”*

guk Arratiarako joerea euki dogu beti. Hori guk berba egiten dogun euskeran beran be bada nabaria... Baina Txorierriko Mankomunidadea sortu zanean, Larrabetzuk han sartzea erabaqi eban.

Beharbada, bereziak zariela horregaitik esango dabe gainontzeko txorerritarrek...

Bai, ez bardinak gara, orain dala gitxi arte harreman txikia izan dogulako Txori-
rriko gainontzeko herriakaz. Ganera, Bil-
borako trenbidea bakarrik Lezamaraino
ipintek be egoera hori areagotu egin
dau.

Zer dozu orain esku artean?

XVII. mendeko datuakaz nabil, eta ez dakit azterketa inoz amaituko dodan. Urte honeetan batutako informazioa kronologikoki ordenatu dot eta ja lau liburu osatu dodaz. Informazioa ez da inon atarateko; niretzat da. Halanda be, gura dauan guztiak kontsulteteko aukerea dau.

Ola eta errota baino gehiago

Sabinek berarentzat biltzen dau Lar-rabetzuko historia; berarentzat eta ha kontsultau gura dauan guztiarentzat. Baina herriko historiaren zati bat argita-ra eroan eban Arrekikiki euskera alkar-teak orain dala urte batzuk. *Urkulu, ola eta errota baino gehiago* liburutxuan, burdinola horren nondik norakoak azal-du dauz Sabinek. "Txorierriko korridorea egiteko obren ondorioz, burdinolaren azpiegitura desagerrarazoko ebela banekian. Argazki pilo bat atera neban, eta horreekaz zein burdinolaren ganean topautako informazioakaz liburua argitaratzeko proposamena egin eusten. Urkulun burdinola baegoala agiri izate-ko";

Sabinek azaldutakoaren arabera, Urkulu oso leku aproposa zan burdinola eregiteko, hango errekan ur-masa handia biltzen zalako. Halanda be, burdinola kokatuko zan lurra jaube gehiegi ebazan eta tirabirak sortu ziran ho-

reen artean. Azkenean, Urkuluko burdinola 1503. urtearen inguruan egin zan, Pascuala Zugazti andrea bitartekari ibili zala. Baina tirabirak dirala medio, egileak ez dau uste azpiegitura 1512. urtera arte martxan ipiniko zanik. Bertako lurraren ugazaba batzuek Bilbotik ekarritako harriakaz gau baten errota al-tzau eben bertan eta beste gau baten uriaren aldekoek suntsitu be.


“Burdinolaren ondoan egurrezko zubia egoan. Garai hatan zubi guztiak ziran egurrezkoak eta hareek berreregiteko beharra egoan urtero. XVIII. mendean zubia harriz egitea erabagi eban uriak. Oso azpiegitura polita zan eta bere ondoan atetxu bat eban, uriolak egozanean automatikoki uraren indarrak ixten zana. Bermeotik Gaztelera eroaten zan arrainaren bidea deiturikoa izaki... Azpiegitura guztia –burdinoa, etxea, zubia...- ordu baten bota eben behera, korridorea egiteko lanak zirela eta”.

[illegible][illegible]

Bar TRIPPY
TUES. GROUP OPEN

For a further understanding, see the notes on the following website, about other Trippers, Berlin:

www.trippys.com
 030 30 30 30



Bete-beteko ospitalea maskotentzat


Sondika albaitaritza-klinikak zerbitzu sorta zabala eskaintzen du etxetik gertu, eta tratu xumea ematen du

David García Sondikako albaitaria izan da azken 10 urteotan. David herrikoa da, baina kanpoan urte batzuk eman zituen karrera ikasten eta lan egiten. Geroago, esperientzia handia zuela itzuli zen herrira, eta bertan Sondika albaitaritza-klinika jarri zuen martxan. Hasiera batean lokal apala zuen, baina duela hiru urte klinika handiago batera joan zen, zerbitzu hobea eskaintzeko asmoz.

Gaur egun bere kontsultategia ederto dago hornituta, eta edozein zerbitzu edo larrialdi aurre egiteko gauza dira han: guztira, 170 m²-ko azalera du klinikak eta instalazio hauek ditu: sarrera, itxarongela, kontsulta bi, laborategia, X izpietako gela, ebakuntza-gela, ospitalizazio-gela, liburutegia, ekografia-gela, ile-apaindegia eta biltegia.

Teknologia berriez baliatuta, Davidek eskaintza zabala jartzen du sondikarron eta txorierritarron eskura: patologia medikoa (diagnosia eta gaixotasunen kontrako tratamenduak), kirurgia oro har, traumatologia, maskoten ospitaleratzea, irudien bidezko diagnosia (erradiografiak eta ekografiak), ugalketa eta hazi-jartzea, analisi klinikoak (odol- eta gernu-analisiak, batez ere), eta ile-apaindegia katu eta txakurrentzat.

Klinika errepide nagusitik gertu dago, Asuatik etorrita, Sondikako sarreran, alegia. Bezeroek erraz eta klinikatik hurbil



aparkatu ahal dute, baita atoiak eramaten dituztenek ere.

Kontsultategiaren ordutegia zabala da: astegunetan eta larunbat goizean dago irekita. Gainera, 24 orduko larrialdietarako zerbitzua ere eskaintzen du Davidek. "Zerbitzu hori betidanik nahi izan dut eskaini, eta azkenean lortu dut: gaur egun, beste albaitari baten laguntzari esker, 24 ordu egunean eta zazpi egun astean gaude zabalik, larrialdiei erantzuteko".

Aldez aurretik hitzordua eskatuta, mota guztietako bezeroak hartzen ditu klinikak: partikularrak, txakur-egoitzak,

hazleak, maskoten dendak, erakunde publikoak... Guztiei kalitate-prezio erlazio ona eskaintzen die Davidek.

Bere ogibiderako bokazioa du sondikarrak eta etengabeko hezkuntzaren aldeko apustua egiten du. Izan ere, hainbat ikastarotan hartzen du parte urtean zehar. "Ikasi behar da, ahalik eta zerbitzu gehien eta hoberen emateko. Astebururen bat libre badut, tailerrak egiten ditugu. Horietako bat nik antolatzen dut Sondikako klinikan urtean behin, anestesiarri buruzkoa, alegia".

"Normalean prebentzioa eta diagnosi goiztiarra lantzen ditugu: txertoak, parasi-toak hil, elikadura, jaiotzetiko gaixotasunak diagnostikatu... Horrela, maskotak luzeago eta hobeto bizi izatea lortzen dugu". Beste alde batetik, elikadurak duen garrantzia aipatu du Davidek. "Bitxia bada ere, animalia batzuek dietak behar dituzte: bihotzeko, hezurretako eta giltzurrunetako arazoak edo erditzeko arazoak badituzte, lodiagiak badaude.... Adinaren arabera, premia ezberdinak dituzte eta horiek banan-banan jorratu behar dira. Horretarako, pentsuen eskaintza zabala dugu bai txakurrentzat, bai katuentzat".

Informazio gehiago:
Iturrikosolo, 4 (Sondika)
Tel.: 94 453 52 08
cvs@euskalnet.net

ZERBITZUAK:

- PATOLOGIA MEDIKOA
Infekzioen eta parasitoen
kontrako tratamenduak
- KIRURGIA
- UKATZETA eta HAZI-JANTZIA
- RADIOLOGIA
- ANALISI KLINIKOAK
FISIOLOGIA
- ILE-ARINDEGIA
FISIOLOGIA
- ETXEZ ETXERO ZERBITZUA
- LANTZARITZA 24 ORDUZ-ITAN
607 85 60 39



sondika


Albaitaritza klinika

Iturikoroa, 4
48130 Sondika (Bizkaia)
t: 91 453 52 08

Astelehenerik ostiralera:
10:00 13:30 / 17:00 20:00
Larunbatean:
10:00 / 13:00

Zerbitzurik onena

Konfiantzarkoa



Dibertimendua araua da

t: Itxaso Marina / a: Loiu Gurena

Elena García Loiu Gurena nagusien egoitzako psikologoa da eta berak azaldu digun bezala, bertako egoiliarren %70 autonomoak dira. Hori dela-eta, berrantolatatu egin behar izan dituzte zentroak eskaintzen dituen ekintzak.

Alde batetik, nagusien egoitza gehienetan topa daitezkeen ekintza terapeutikoak egiten dira han: psikoestimulazioa, psikomotrizitatea eta erlaxazioa, banaka batzuk aipatzearen. Ekintza horiek onura handiak ekartzen dizkie nagusiei gorputza ez ezik burua ere suspertu egiten dutelako. Bestetik, jai- eta jolas-ekintzak ere antolatzen dituzte egoitzan. "Oso inportantea da nagusiak ez aspertzea eta gizarte-sareak sortzea euren, familien eta langileen artean. Nagusien egoitza batean egoteak ez du esan nahi kanpoko munduarekiko harremana eten egin behar denik. Are gehiago, kanpoko munduarekiko harremana izateko gaitasuna dagoenean, sustatu egin behar da".

Eta egoiliarrek kanpoaldearekin harremanetan jarraitzeko, hain zuzen ere, autobus bat jarri dute martxan, nagusiak egunero Bilbora eroan eta handik ekartzen dituen. Era berean, banaketa-furgoneta bat astero hurbiltzen da zentroraino eta modu horretan, ziurtatzen dute mugikortasun murriztua duten lagunek nahi dituzten "gutziak-eta" erosi ahal izatea.

Loiu Gurena nagusien egoitzan argi dute aisialdia lantzea gorputza eta burua lantzea bezain inportantea dela. Horregatik, ekintza terapeutikoaz gainera ekintza ludikoak ere eskaintzen dizkieten egoiliarrei.



"Guk jai guztiak ospatzen ditugu: Santa Ageda, San Blas, Inauteriak... Edozein aitzakia da ona jaialdia eta dantzaldia antolatzeko. Ona eta onuragarria, hurrengo egunetan egoiliarrek alaiago azaltzen direlako". Gainera, egoitzan txoko bat ere badago, eta familiako ospakizunak egiteko erabil dezakete.

Baina Gurena egoitzan tailer sorta

zabalean parte hartzeko aukera ere bada. Horietako bat risoterapiaren tailerra da. Nagusiek kezka asko dituzte buruan: batzuek egoera fisikoan dute sorburua; eta beste batzuek, gogo-aldartean. "Horregatik da inportantea egunean momentu bat hartzea, arazook alde batera utzi eta gauzak umorez ikusteko. Tailer horretan egoiliarren arteko harremana ere lantzen dugu".

Kezkatuta baino, okupatuta nahiago

Luchi 90 urteko emakume alaia da. Mugimendua gustatzen zaio eta horregatik parte hartzen du ahal duen ekintza guztietan. "Izan be, kezkatuta baino, nahiago dot okupatuta egon". Horrela, bada, kartetan jolasten du lagunekin eta errosarioa errezatzen ere badoa. Abesbatza kantatzen du eta abestiak gogoratzea memoriarako oso ondo datorkiola dio. "Kantatea eta dantzatea izugarri gustatzen jat. Gaztea nintzenean, Gaztelekuko dantzaldira joaten nintzen". Egoitzan egiten diren ekintza guztiak oso entretenigarriak dira, emakumearen ustez. Baina berari gehien gustatzen zaizkionetarik bi risoterapia eta erlaxazio tailerrak dira. "Lehenengoan barre egiten dozulako; eta bigarrenetan erlaxatu egiten zarelako. Oroitzapen politak jatorkuz gogora eta jarten deuskuen musikea be oso atsegin da". Inauterietan primeran pasatu zuen moztarokak eta ekintzak prestatzen, izan ere, egun batzuetan Hawaiira "bidaiatu" ziren egoitzako guztiak. "Hemen ez da inor aspertuten. Onena aktibo egotea da".

Youtube

Interneten aroan aspaldian sartu ginen, eta nagusi askok ere grina handia erakusten dute mundu birtuala ezagutzeko. Informatika tailerretan ordenagailuaren erabileraz gainera, sarean nabigatzen ere ikasten dute. "Arrakasta handiko ekintza da. Askok ordenagailua eta router eramangarria erosi dituzte, logelan ere Interneten ibili ahal izateko. Musika youtube entzutea izugarri gustatzen zaie".

Klasean ikasitakoa praktikan jartzen dute eta bateren batek abesbatzaren egitaraua ordenagailuaz idazteko aprobetxatzen du. Gurena abesbatza ere bada-goelako. Irakaslea ABAOn dabilen erru-siar abeslaria da, eta nagusiek abesten

eta ahotsa modulatzeko ikasten dute berarekin. Horrezaz gainera, sketchak antzeztzen dituzte eta eurek idatzitako poemak edo istorioak irakurri ere egiten dituzte. Hilabetean behin saioa eskaintzen dute zentroan bertan, eta beste egoitza batzuetara ere joaten dira.

Zapatuetan eta domeketan pelikula bat ematen dute zine-aretoan. Nagusiek gehien eskatzen duten generoen artean zarzuela eta musikalak daude. "Hilean behin, zine-foruma dugu: pelikula bat ikusi eta hainbat ariketa egiten ditugu horri buruz". Kazetaritza tailerrean ere eguneroko berriak dituzte mintzagai, eta guztion artean aukeratzen dituzte egoitzaren egunkariaren hurrengo alean argitaratuko diren artikulak.

Aipatutakoak Gurenak egoiliarri eskaintzen dion aukera ludiko sorta zabala adibide batzuk dira. "Horiek guztiek onura psikologiko handia ekartzen diete. Parte-hartzea oso handia da tailer guztietan, eta oso pozik gaude, bai zentroko langileek bai egoiliarrek".

"Nagusien egoitza batean egoteak ez du esan nahi kanpoko munduarekiko harremana eten egin behar denik"



TXORIERRI
2007

